



## 1. Ongi etorriak

Ongi etorri denoi! Lehenengo aldiz argitara ateratzen garen honetan zure arreta eskertu nahi dizuegu lehenik eta behin.

Buletin honetan zure interesa suspertuko dituzten gauzak aurkituko dituzulakoan gaude, gure egitasmoaren berri ematen dizugunarekin batera.

Haur txikien guraso eta irakasleen artean irakurketa ohiturak sortzeko bokazioz jaio zen egitasmo hau, eta irakurtzeko zaletasuna sortzeko lehenengoetako erronka kalitatezko liburuak eskaintzea dela uste dugu.

Gure lanetako bat hauxe da hain zuzen ere, irakurketak aholkatzea. Hona, atera berri dugun [gida txikian](#) aukeratu ditugun liburuak, eta bideratzen ditugun lehen aholkuak aurki ditzakezu.

## 2. Galdekizunak

Bularretik Mintzora egitasmoaren ezaugarri nagusien artean nabarmendu nahi dugu etengabeko ebaluazio sistema bat aurrera daramagula: familien irakurketa ohiturak behatu; liburutegietan haur eta familiekin ematen diren irakurketa uneak behatu; eta, batez ere, gure egitasmoa bere osotasunean behatu, beti, hobekuntzaren esperantzan.

Herriz herri egiten dugu lan hau, gure egitasmoa osorik aplikatzen dugun herrietan, hain zuzen. Orain arteko datuak, parte hartu duten lehenengo bost herrietan jaso ditugu: Tolosa, Ermua, Iurreta, Amurrio eta Oñati. Herri guzti horietan gurasoek galdekizun bati erantzun zioten. Lehenengo galdekizunak, lehenengo datuak eta eten gabeko hausnarketa: [hona datu hotz batzuk](#).

Lortuko al dugu honen antzeko parte hartzea, galdeketa sartu berri diren herrietan, Markina-Xemein, Aramaio, Legazpi eta Donostian? Hurrengo batean.

## 3. Irakurketa klubak abian

Azkeneko bi urte hauetan esperimentatzen ari gara guraso eta hurrekin batera osatu ditugun [Irakurketa Klubetan](#). Horietan dinamizatzaile baten edo biren ahotik eta eskutik liburu ederrak ezagutzeko aukera eskaintzen dugu. Irakurketak partekatu, ipuinak kontatu poesia errezitaldiak, antzeppen txikiak... Haurrek adina gozatzen dute haien gurasoek, liburu ederrak ezagutu, eta horiek nola irakurri, ahoz gora ipuinak nola kontatu saiakerak burutzen duten bitartean.

## 4. Ongi pasatzeko

Atal hau hilerio mantendu nahi dugu, gure helburuen inguruan ongi pasatzeko aitzakia izan daitezken hainbat bitxikeria erakusteko. Gaurkoan kantua, helduek ikasi eta hurrekin kantatu: eredu asko dago euskal kantak ikasteko. Ausartu Nafarroan jasotako [Libertitzeko kanta](#) hauekin.

Buletina hilerio e-postaz jaso ahal izateko izena eman gure webguneko [Guraso Berriak](#) atalean.

Informazio gehiago: [www.galtzagorri.org](http://www.galtzagorri.org) eta [www.bularretikmintzora.org](http://www.bularretikmintzora.org)